

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2021 000000869

Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0051**Xedea****Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea****Aurrekariak**

Lehenengoa: Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida iraungita dago. Horiek horrela, emakida berria esleitzeko deialdia egin behar da, eta horretarako deialdiaren oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.

Bigarrena: Udal Arkitektoak espediente honen xede diren jabari publikoko ondasunen balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostena igorri du, 2021eko martxoaren 8ko dataz.

Hirugarrena: 2020ko martxoaren 12an, Errenta Teknikariaren txostena eman da, ordaindu beharreko kanonari buruz.

Laugarrena: Halaber, espedientearen Idazkaritzako AOTren txosten juridikoa dago, 2021eko martxoaren 22koa.

Argudioak

Lehenengoa: Emakidaren xede den kantina eta komunak jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikuluekin bat etorritik.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira.

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituen, eta, beraz, Sektore Publikoko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E500063A2D00U1U8R7M1S4R0

Sinadurea eta dataARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 25/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/03/2021
12:37:38EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0051

Data: 26/02/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Espediente honen xede diren emakidak ez ditu Udalak finantzatuko, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

Seigarrena: Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarritzko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Erabakia

Goian aipatutakoa kontuan izanda, honakoa erabakitzen dut:

LEHENENGOA: Aritzatzuko kantinaren eta komunen emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Jabari publikoaren gaineko emakida esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 10 laneguneko izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

**Sinadurea eta data**